

ANTSOAINEK FESTETAKO ETA ARRIKUROCKeko KANPAINAK AURKEZTU DITU

Antsoaingo herria eta Udala ilusioz dago festen eta Arrikurocken zain, antsoaindar asko biltzen baitira herriaz elkarrekin gozatzeko urteko egun berezi horietan. Hortaz, Udaleko kideok herritarrekin batera, elkarrekin prestatu ditugun kanpainak aurkeztuko ditugu; izan ere, Antsoainek festetan ere, ingurumena errespetatu nahi du, bere bi hizkuntzei tokia eman, kontsumo arduratsua bultzatu eta jarrera zein eraso sexistarik gabe bizi.

Horretarako, Udalaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen eraso sexistei aurre egiteko Prebentzio eta Arretarako Tokiko Protokoloa. Indarrean egonen da irailaren 8tik, Arrikurock jaialdiaren egunetik, irailaren 16a arte, jaietako azken eguna arte. Udalaren baliabideak koordinatzeko neurriak jasotzen dira Protokoloan, eraso sufritzen ahal duten emakumeei arreta emateko; sentsibilizazio neurriak ere baditu, herritarrak indarkeria matxista guztien bazterketan inplikatu daitezten eta, gure gizartean bizirik dirauen eredu patriarkaletik urrunduz, elkarbizitza eredu berrietarantz pausoak eman daitezten. Eduki edota jarrera sexistak salatzeke aukera ere izanen da, igualdad@ansoain.es helbidera mezua bidaliz. Berdintasuneko kanpaina hau Nafarroako Berdintasun Institutuak laguntzen du diruz, "Eta festetan... zer?" kanpainaren barne.

Bestalde, aurten Euskaraldiari egindako keinua ikusi ahal izan da. Nafarroako herrietako jendea jada prestatzen ari den ekimen bat da, eta erakunde publikoen babesa dauka, esate baterako, Antsoaingo Udalarena eta Nafarroako Gobernuarena. 16 urtetik gorakoek antolatuta eta parte har dezakete, bai euskara dakitenak zein ulertzen dutenak. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra izanen da, baina parte hartu nahi dutenek irailaren 20tik aurrera eman beharko dute izena, Belarripresten edo Ahobiziren txapa bat eskuratzeko. Belarripresten txapa janzten duenak honakoa adieraziko du: "ez dut euskaraz hitz egiten, baina ulertzeko gai naizenez, niri euskaraz egitea nahiko nuke, baita nik gaztelaniaz jarraitzen dudanean ere". Ahobiziren txaparekin, berriz, lagun horrek adieraziko du konpromisoa hartzen duela euskaraz aritzeko ahal duen guztietan; euskaraz eginen duela, ulertzen dutenekin; eta edozein tokitara joaten denean, lehenengo hitza euskaraz eginen duela. Gainera, txapa horien bidez, Nafarroako herrietan, aldi berean, erronkan parte hartzen ari direnek elkar identifikatzeko aukera izanen dute. Politika izanen da, eta festa hauetan ere tokia emanen zaio.

Drogen kontsumoari buruzko sentsibilizazio eta prebentzio kanpaina prestatu du Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, drogen kontsumoari lotutako arriskuen prebentzioan dugun erantzukizunaren inguruan hausnarketa egiteko helburuarekin, biztanle orori zuzendua. Bi mezu helarazi nahi ditugu: alde batetik, adin txikikoen artean alkohola eta drogen kontsumoak dakarren arriskuen inguruko sentsibilizazioa; bestetik, drogen erabilpenak edo gehiegizko erabilpenak ez duela erasorik justifikatzen. Kartelak eta esku-orriak egin dira; kontsumo arduratsurako jarraibideak eta, jai giroan drogen kontsumoarekin harremana duten neskendako interes-gida biltzen dituztenak. Txosnagunean, irailaren 14ko 23:00-03:00etara, Hegoak elkartearen Druida gunea zabalik egonen da: informazio zerbitzua ematen dute eta analisiak egiten dituzte bertan, droga kontsumoari loturiko arriskuak eta kalteak arintzeko.

Festetako egitarauari dagokionez egitura mantendu da, baita legegintzaldi honetan egindako berrikuntzak ere, ongi baloratu zirelako 2017an herritarren artean egin zen galdetegi irekian, festetako prozesu parte-hartzailearen barruan. Beraz plazatik bertatik botako den txupinazoarekin gozaten jarraituko dugu, hantxe bertan, denok batera eginen dugun mokadutxoarekin ere bai, eta, aurten ere, Lapurbide kalea oinezkoentzat izanen da.

Bestalde, aukera izan dugu jada botoa emanaz, suziria nork botako duen erabakitzeko; Socorro Vallejo Echalecu, Antsoaingo Haur Eskolako zuzendaria aukeratu dute herritarrek txupinazoa botatzeko. Zorionak Soco!

Besterik gabe, zuen parte hartzea espero dugu. Ongi pasa!



Antsoaingo Udala
Ayuntamiento de Ansoáin